Bilbo dub kronikak

PADDY REKALDE

poesia Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2004 Paddy Rekalde
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2004ko maiatza
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

EZ DA IRAGANMINA, LAGUNOK

Zubi arteko hiri zahar eta epel hau
erruki barik bortxatu dute
jauntxo engominatuen bulegoetan,
behin eta berriro aurretik
behin eta berriro atzetik
behin eta berriro ahotik,
eta makillaje mota guztiak aplikatu dizkiote
zaurietan, beltzuneetan, urratuetan...
San Anton zubitik Deustukora erraz ikusten da
hiria top-model bat bihurtu nahi dutela.
Halaxe etorri zaizkit gogora garai bateko irudiak:
ijitoak euren odolari abesten, txaloka,
mozkorrak, jonkiak eta maiteminduak
bazter batetik bestera,
anguleroak kriseiluaren argipean koñaka zurrutean,
kontainerrak sutan kale eta zubi artean,
kaleen zarata etengabea.
Halaxe bidaiatu dute ene oroitzapenek
itsasadarrean barrena, mareen beharrik gabe,
Deustuko zubira heldu arte:

Guggenheim erraldoia,
Puppy ikaragarri bizigabea,
eta palmondo ondo lerrokatuak
eta pasealeku itxurosoak
eta turismo denda bulegoak
eta musika jauregiak
eta hotelak eta museoak.
Ezin jakin non nagoen.
Begiak bildu behar izan ditut,
beldurrak banengo bezala;
hantxe zeuden Euskaldunako langileak
ke poteetako laino kimikoaren erdian borrokan,
balak, euri langarra, torlojuak eta zeru goibela,
kaskoak, sirenotsak, txakurrak, zapiak, koheteak...
eta bafleetan «Eutsi gogor, Euskalduna».

Ez da iraganmina, lagunok;
hauxe da kontua:
bazter hauetara zenbat eta gehiagotan itzuli
orduan eta ezezagunagoak egiten zaizkigula,
gero eta urrinago sentitzen ditugula.

Beste barik.

NORA DEIKA?

Turistez jositako zubia zeharkatu zuen, astiro,
joan-etorrian zebilen jende oldeari erreparatu barik,
ezer espero ez duenak bezala,
denborari gupida barik barre egiten dionak bezala.

Beroki ilun eta zarpailtsu bat,
gerri aldean soka mehe batez lotua,
txandal praka koadrodunak hanketan
eta behatzak agerian uzten zituzten zapatilak.
Erosketak egiteko karro gurpildun gainkargatu bat,
plastikozko poltsa pare bat
eta itsasadarretik zetorren haizeak
alde batetik bestera inarrosten zituen
bere adats urdin eta kirrutsu haiek.
Hura guztia zebilen berarekin batera.

Begirada?
Esan dizuet,
ezer espero ez duenarena.

Jende zirimola hartatik igaro eta
zubi osteko telefono kabina batean sartu zen,
ni nengoen lekutik bi metrora edo.
Telefonoa hartu eta belarrira eraman zuen,
dirurik sartu gabe,
zenbakirik markatu gabe,
eta berbetan hasi zen
burua kristalean jarrita,
begiak bilduta,
irribarre bortxatua ezpainetan.

Nora deika?,
zeru aldera?
ala infernu aldera?

INFERNUTIK AZKEN IRRIBARREA

Palmondo baten azpian topatu zuten hilik
bere larruazal siku eta hezurtsuaren barruan
astelehen goiz batean.
Ondoko errepidean trafikoaren zarata etengabea,
itsasadarrean kaioak karraka,
lantegietako sirenak.
Eta zerutik, zeru goibel hartatik,
bere beso more eta zulatuak bustitzen zituen euria.

Indianoren batek landatuko zuen palmondo hura,
eta beharbada, zeinek daki,
haren azpian etzan eta gora begira,
zeru ilun eta tropikal hari begira
emango zituen bere azken orduak
beste lurralde epel eta koloretsuekin ametsetan.

Beharbada, zeinek daki,
azken irudi hark irribarrea eragingo zion
bere ezpain aspaldi hiletan,
oinaze hartatik ihes egin nahian.

Zeinek daki.

ABERKIDEAK

Zalantzarik ez dagoela diost,
ez dudala birritan pentsatu behar,
dirua banku honetan sartu behar dudala,
dirua «etxean» geratzen dela,
«gure» banku batean, alegia,
konplizitatea bilatzen duen irribarre batez.

Baina morroi trajedun honek ez daki,
edo ez du jakin nahi,
aberria, Igorretakoak esan zuen bezala,
hautatu egiten dela,
eta nik ez dudala banku hori aberkidetzat jotzen,
ez Athleticen koloreak,
ez Begoñako andramari izeneko egur margotua,
ez hiri honi harro begiratzen dion Lopez de Haro mertzenarioa,
ez protestaka ari den agureari indarrez oratzen dion txakurra,
eta are gutxiago Botereari ipurdia miazkatzen diotenak.

Ziega batean bihotza gelditu zitzaion Kirruli,
gose greba batean hil zitzaigun Crespo Galende
ahaztua
eta halakoak gogoratzen ditut halakoetan.

Nire zauriak
nire ametsak
dituztenak
dira
nire aberkideak.

BOTILAREN BIHURGUNEAK

Botilaren bihurguneak maiteago nituela
aurpegiratu zidan,
berarenak baino maiteago;
eta, antza, egia zen.

Alkoholak sortzen duen
laino goxo baina faltsua
maiteago nuela,
eta garito zaratatsuak
eta barra bustiak;
hura guztia maiteago nuela
aurpegiratu zidan.

Eta bakarrik joan zen
kalean barrena,
nirekin zegoenetan bezain bakarrik.

LEHERKETAK

Leherketak ekartzen zituen gogora nire aitabitxiak
afaldu ostean, MG botila erdia hustutakoan.
Eskutik oratu eta ene begi txikitxootan iltzatzen
zidan
begirada ginebratsu hura,
Artxanda inguruko burdinazko zinturoian
Junker erraldoi haiek jaurtitako bonben leherketak
gogora ekartzean.

Leherketak ere, haren andrearen etxetik gertu,
han, La Arboledako meatzeetan,
etxearen horma eskasak
dardaraka ipintzen zituen leherketak
gogora ekartzean
iltzatzen zidan begirada ginebratsu hura.

Ordurako MG botila osoa edana zuen.

Haren esku sendoa, zaharra,
gihartsua, ebakiek zauritua,

baserriko beharretan eta trenen motorretan
gogortua
dardaraka hasten zen
nireari oratzeari utzi barik.
Aitabitxia atxurtu xamar zegoela
esaten zidan amak begirada-keinu batez.

Baina nik
ondotxo nekien
esku sendo hura dardaraka ipintzen zuena
leherketa haiek guztiak gogoratzea zela,
leherketa haiek,
orduantxe,
eskuaren larruazalaren azpitik,
hezur eta zainen artetik,
berriro gertatuko balira bezala.

Leherketa haiek guztiak gogoratzea...
eta, batez ere,
leherketa haiek guztiek ekarri zituzten
bestelako
giza leherketak.

LAS CORTES

Prostitutak eta jonkiak,
eta prostitutak diren jonkiak,
eta jonkiak diren prostitutak,
giza miseria
giza miseriari
diru trukean
Las Cortes kalean.

¡Ven aquí, guapo!
diost euretako batek,
kotxe baten aurrealdean jesarrita dagoela.

¡Ven aquí, cariño!
eta irribarre egiten du,
bere gorputz lodi eta zaharra erakusten didala,
eta badirudi
upel itxurako bere tripa koipetsua
lehertu egin behar zaiola,
lehertu egin behar duela
ezin estuago daroan minigona merkeak.

Momentu batez
kalearen amaiera aldera begiratu du.
Ez dakit han ikusi ote duen
honen guztiaren irteera,
amets egiten duen ihesa,
edo Cantalojasko zubitik,
trenbidearen gainean,
handik behera salto egiteko aukera.

Niregana zuzendu du berriro begirada
eta irribarre behartu batekin batera
zera diost:
¡Ven aquí, cariño!

UDAZKENA

Asun, hirurogei urteko emakumea,
hiri honetako zuhaitzen hostoak
zelan jausten diren begira.

Asun, hirurogei urteko emakume
oraindik oso ederra,
bere udazkenean.

Gizonik topatzeko
ez zenuen momenturik izan?
galdetu diote hainbatetan,

eta irribarre triste batez
ezetz
erantzuten du halakoetan.

Asun, hosto jausiei begira,
bere oroitzapenetara bildu da,
eta bihotz minez gogoratu du

ez zuela une egokia topatu
Begori
maite zuela esateko,

ez zuela adorerik izan
Begoren
ezpainak musukatzeko.

Asun,
hosto jausi berriei begira,
bere udazkenean.

1. GUTUNA ARESTIRI

Gabriel,
bihotzak, berbak zein begiradak
dagoeneko
ez dira harrizkoak,
altzairuzkoak baizik,
edo titaniozkoak,
zure egun haietan baino hotzagoak,
eta poesia ez da merkea,
ez da herriaren ahotik debalde jasotzen.
Gabriel,
lore jokoak beka-sari joko bihurtu dituzte
oraingo jauntxoek
kultura babesteko aitzakiaz,
eta metatu egiten dute dena
almazen-jauregi erraldoi eta hutsetan,
izozmendien antzera.
Gabriel,
Askaotik Sendejara
Abusutik Elorrietara
Bilbaon
esperantza

are meharrago,
ilunago eta
laburragoa da.

AMODIOA
ETA TXAKOLINA

Arbolagañako txakolindegian
elkartzen ziren maiteminduak
iraileko arratsaldeetan.

Masustak more, txakolina fresko;
eta itsasadarrean,
behi-adar erraldoiez joak bezala,
ontzi arribatu berrien sirenak.

Ondoko trenbideak pasata,
pikondoen gerizpean,
maiteminduek astiro-astiro
botoiak askatzen zizkioten elkarri.

Hura guztia
Arbolagañako txakolindegian,
botila pare bat hustutakoan.

LA NAJAKO ARKUPEETAN

La Najako arkupeetan,
rastroa egiten zen arkupeetan,
koltxoi zahar, zikin, urratu eta zulatuak,
eta jonkiak eta etxebakoak,
eta mozkorrak eta gerobakoak,
batzuk isilik, mutu,
garrasika beste batzuk,
batzuk hilak baino lasaiago,
beste batzuk, berriz, dardaraka,
zementuzko zoru hotzetik
nekez altxatu,
nekez pauso batzuk eman
eta berriro nekez etzaten direnak.

Eta kaioak itzulinguruka,
euren gainean zalantzan,
mokoka hasiko ote zaizkien
azokatik botatako arrain ustelduei
ala La Najako arkupe horietan
biltzen diren giza hondarrei.

Ohol kraskatuak itsasadarrean,
mareak dantzan ibilitakoak,
ez dira auskalo nongo kostetan
naufragatutako ontziren batenak,
hori poeta ezin itsuago batek baino ez luke ikusiko.

Itsasadarreko ur lohia
La Najako arkupe horietan
biltzen diren giza hondarren ispilu bihurtua.

No future! ez da batzuentzat modaz pasa.
Herioski bidaia agentziak
doan antolatzen du
La Najako arkupeetan biltzen diren
giza hondarren patua.

HAIKU MAIKU

Poeta miope hau
parke ondoko kafetegi batean jesarri
eta haiku bat idazten saiatzen da,
leihotik zuhaitzei begira,
haiku bat, haiku eder bat,
bost zazpi bost,
zuhaitzei begira.

Ezkiek gozo
oparitzen digute
euren itzala

Irribarre egin du,
kafesnea ahora daramala,
libretan idatzitakoa irakurtzen duen bitartean.

Ezkiek gozo
oparitzen digute
euren itzala

Ezkietara itzuli du begirada,
euren azpian etzanda dagoen gizon beltz bat
cd-z betetako poltsa zarpailtsu pare bat
ikusi barik.

Inork ez daki
gizon beltz hori
bizirik ala hilda dagoen
zeru itsaso zikin honen azpian.

Hala ere
poeta miopeak
ederto bete du etxeko lana
idazleen akademiarako...

bost zazpi bost.

GINEBRAREN BESOETAN

Goizeko hamaikak aldera Amaiaren tabernara
ahal bezala heldu
ahal bezala sartu
ahal bezala barrara hurreratu da Lete,
eskuak praketako poltsikoetan
dantzan jartzen dituen dardarizoa ezkutatu nahian,
ilea busti berri eta txarto orraztua,
begiak apur bat bilduta
eta musu inguruan
aurpegia desitxuratzen dion oinaze keinua.

Badirudi
Herioak
bere azkazal luze, zorrotz eta pozoitsuak
iltzatu dizkiola
erruki gabe
etengabe
hezur-mamietaraino,
bihotzeraino.

Eta Letek,
MG botilari begira,
Amaiari begiratu barik,
baso bat ginebra eskatu dio,
baso zabalean.

Eskua agudo eta dardaraka doa
ginebra baso atera berrira,
une honetan
bizitza bera jokoan baleuka bezala,
eta jokoan dauka, antza,
eta arnasa hartu barik
zurrutada bitan
hustu egin du basoa.

Isilik gaude
Amaia, Lete eta hirurok,
azkazal luze, zorrotz eta pozoitsuak
iltzatu dizkion Herioa bezala.

Begien keinu batez
basoa berriro betetzeko adierazi du Letek.
Amaiak, bigarrena etorriko zela jakitun,
ez du ginebra bueltatu botilen artera,

eta bigarren laztan etilikoa zerbitzatu dio,
eta Letek, aurrekoan bezala,
zurrutada bitan hustu du basoa,
zurrutada mantsoago bitan,
eta igarri egin da
haren mihiak
zelan igeri egin duen ginebran
plazer betean,
zelan eztarriratu duen
begiak bilduta,
zelan baretu duen egonezina.

Orain ez dago Herioaren oinaze arrastorik,
ez dago Leteren larruazalean iltzatutako azkazalik.
Ginebra erreginak,
su koloreko adatsak, gerezi zaporeko ezpainak,
gozo besarkatu du
eta musukatu
eta miazkatu

Letek, oraindik begiak bilduta,
zera diotson bitartean:
Maite zaitut!

PANTERA EMEA

Pantera emeak
soineko beltza jantzi du
bere larruazal beltzaranean,

eta tabernara sartu,
barrara hurreratu
eta begiratu egin dizu
sua darien begi zoragarri horietatik,

eta ederto daki
gerra irabazita daukala
zure ezpainak
dardaraka hasi direla igartzean.

PASABIDE HUTSAK DITUZU KALEOK

Maniki dotore jantzia duzu hiria,
adatsetatik oinetaraino,
baina isila, eta hila.
Horrelaxe irakur dezakezu Banco de España kalean
gaztetxea zen eraikin apain berrituan:
BBK - Euskal Herriko Unibertsitatea - Esperientzi Ikasgelak.
Plaka txukuna, edifizio garbia, berria,
baina isila, eta hila,
kaleotako isla zibilizatu eta modernoa,
eraiki nahi duten hiri mortuaren adibide.
Ez dago kartelik hormetan,
ez badira iragarki txiki eta hotzak,
ez dago kaleak errebindikatzen dituen pintadarik,
eta teilatuen gainetik zabaltzen diren irrati libreen uhinak
gero eta urriago, gero eta isolatuago.
Pasabide hutsak dituzu kaleok,
erakusleiho zerrenda argitsu eta luzeak,

Guggenheim eta euskal sukaldaritza ezagutzera etorritako
turisten argazki kameraren jopuntu bakarrak.
Laster, kaio zaborzale zaratatsuen ordez
zisne harro eta mokofinak ipiniko dituzte ur uherrotan,
baita euskal sukaldaritza berria dastatzeko afariak
halako itsasontzi dotore egokitu batean eman ere,
itsasadarrean gora eta
itsasadarrean behera.
Uste dut goi mailako hosteleroak pozik daudela.

KOLPE BATEN INDARRA

Kolpe baten indarra
ez dator
giharren arabera,

baizik eta momentu horretan
daukazun
ostia txarraren arabera.

BOXEOLARIA

Zortzi-hamar urte izango nituen,
baina hala ere ondo gogoratzen ditut
zapatu goizetan izaten ziren
La Casillako boxeo borrokaldiak,
ring haren inguruko egurrezko aulkiak,
kanpaiaren zarata agudoa,
eta jendea boxeolariei xaxaka,
amorruak jotako txakurrak balira bezala,
munduko bazter guztietatik etorritako
boxeolariei xaxaka,
kontrakoa akabatzeko eske.
Kolore guztietako boxeolariak,
gazteak zein zaharrak,
gihartsuak zein koipe-zakuak,
elkarri ostiaka, zeharo amorratuta.

Ondo gogoratzen dut Perico Fernandez hura,
zilar koloreko bataz jantzita,
ringera bidean topatzen zituen umeekin olgetan:
¡Chaval, pega, pega, chaval!
guante potolo eta distiratsu bi haiek

eskaintzen zizkigula.
Eta nik
poza agertu nahi zuten begietan
tristura itzela igartzen nion,
tristura itzela,
itzela,
bertan hil nahi duenaren antzekoa.

AHOTS EPELAREN BILA

Kale zahar horretako lokutorioak
itxura dotorerik ez badauka ere,
ortzadarra ematen du ordu batzuetan,
hara sartzen direnen larruazalen koloreengatik
hara doazenen jantzien koloreengatik.
Eta pentsatzen dut
are koloretsuagoak direla
telefonoaren bestaldean dauden parajeak,
eta gorriagoak ezpainak, eta urdinagoak zeruak;
eta minutu batzuez, behintzat,
telefonoz bestaldeko ahotsak
epeldu egingo die bihotz hotzitua.

Aurreko hirugarren pisuko gizonak
mespretxuz begiratzen dio leihotik
kale zahar horretako lokutoriotik
sartu eta irten ohi den giza ortzadarrari,
baina ez daki,
edo ez du gogoratu nahi,
bere aitak
antzeko beste lokutorio batera

jotzen zuela hilean behin edo birritan
sorterriko parajeen berri izateko,
baina, batez ere,
giza ortzadarrak egiten duen bezala,
bihotz hotzitua laztanduko zion ahots epelaren bila.

FRANKOTIRADOREA

«Summer gaizto xamar»,
halako izenburu batekin
helduko lioke idazleren batek poema berri bati,
hasiera ederra eta
irudimen handikoa egin duelakoan,
jakin barik
poemaren sua, indarra... dinamita guztia
lerroen artean ezkutatzen dela,
poemaren lerroen artean ezkutatzen dela
frankotiradore bat,
odola borborka ipini nahi dizun
frankotiradore bat,
larruazala ikara batean ipini nahi dizun
frankotiradore bat.
Ezpainak bustiarazi
bihotza urtu, gurina bailitzan,
hankartea berotu...
hori guztia egin beharko lizuke
poemaren lerro artean ezkutatzen den
frankotiradoreak.

Eta hala gertatu ezean
hori ez da poema bat, lagunok;
sukaldaritza berriko errezeta izan liteke lasai asko,
itsasgora eta beheren gaineko komentarioa,
toponimiari buruzko lau berba,
edo zer dakit nik.

«Summer gaizto xamar, Sam...»,
baina ez, hark uste du
poesiaren xarma lerroen jantzietan datzala,
berba puzzle dotoreak direla poemak,
bolborarik gabeko kartutxo ondo dekoratuak.

Ezin du hori guztia ulertu soldatapeko idazleak.
Ez du inporta zein hizkuntzatan esaten diodan,
ez du ulertzen
edo ez du ulertu nahi.
Soldatapeko morrontzak etxean babesten du
kaleko kiratsetatik
tabernetako izerdietatik
begirada bortitzetatik
basa ezpainen adurretatik
uniforme harrotuetatik
zain hanpatuetatik

beltzune kimikoetatik
zakil beroetatik
alu hezeetatik
labanen ahoetatik.
Saiatzen da zeozer idazten,
baina aurreko orria, edo pantaila,
berbez gainezka badago ere,
bere musua bezain zurbil agertzen da,
bere zainak bezain hutsik.

«Summer gaizto xamar, Sam...»,
eta uda betean bizi haizela
uste dok.

UMORE BELTZEKO PAISAIA

Patu txarreko emakume hark
Albia lorategietako banku batean
ematen zuen gaua
uda sargoritsuan zein negu hotzean.

Erosketarako karrotxo ezin izorratuago bat,
zaramatik ateratako poltsa bi
eta zeozer gehiago...
hura zen aldean zeraman guztia,
besterik ez.

Bere begien aurrean
zuhaitz harro-harroak eta iturri dotorea,
alboan Cafe Iruñako engominatuak
eta taxi geltokia,
eta atzealdean
umore beltzeko paisaia,
Justizia Jauregia.

KONTAINER ONDOAN

Kotxeak agudo doaz
San Franciscoko aldapan behera,
eta bikoteak eta autobusak eta motor zaratatsuak,
eta magrebiarrak eta beltzak hara eta hona,
eta ijitoak eta prostitutak izkinetan.

Kontainer baten kontra jonki bat,
eskuak txandaleko poltsikoetan sartuta,
begiak erdi bilduta, hankak tolestuta,
eta ez dakit benetan, momentu batetik bestera
kontainer azpiko asfaltora jausiko ote den.
Agian belauniko jarri nahi du,
belauniko, otoitzean bezala,
eta, begirada asfaltotik jaso ezin badu ere,
badirudi
bere infernu propio hori amaitzeko
eskatu nahi diola zeruari,
teilatu artean ikusten den zeru mugatu urrinari

Baina zerua hutsik dago,
eta hegan dabiltzan kaioak
putreak baino ez dira.

2. GUTUNA ARESTIRI

Gabriel,
Jaungoikoa
ez da Otxarkoagan jaio,
ezta Larraurin hil ere
punk-rocker haiek abesten zuten moduan.

Jaungoikoa
puten plazer oihuak
bezain faltsua da.

MORFINA

Gogoratzen dut
morfina dosiak ez ziola oinazea baretzen,
eta bigarren bat eman geniola,
eta hala ere
zainetan zebilkion laztan kimikoak
ez ziola bakerik ematen.

Gogoratzen dut
errealitatearekiko kontaktu guztia galdu zuela,
urruneko lekuez berbetan hasi zela,
astiro, ezpainen kontrol barik,
niri begira,
baina ni ikusi gabe,
eta bere esku hezurtsua
nirearen gainean olgetan ibili zela.

Gogoratzen dut
hirugarren dosia emateko
zalantzan ibili ginela;
eta orduan
seko gelditu zitzaion
bihotza.

Gogoratzen dut
azken minutu haietan
gustura asko eskertuko zukeela
baso bete ardo
hurbildu banio
ezpainetara.

Gogoratzen dut
ez nuela egin.

HERRIMINARI GERRA

Gure etxeko balkoitik ederto ikusten ziren
aduanetako puerto franco hartan
atrakatutako itsasontzien banderak,
hormatzar haren gainetik
txapelokerren gorroto begiraden artetik
itsasadarraren altzo gazi eta lohitsuan.

Kolore guztietako banderen artean
CCCP hizki handien gaineko gorria
gustukoena genuen,
are gustukoago
haizeak olgetan ipintzen zuenean,
eta uste genuen, gizajook,
iraultza bera zekartela
merkatalontzi haien depositutetan,
edozein momentutan lehertuko liratekeen
11.000 kilo dinamita bezala.

Baina ez,
merkatalontzi haien barrutik
hirunaka edo launakako taldetxoetan banatzen ziren

marinelak baino ez ziren lehorreratzen,
burumakur,
begirada zerua bezain goibel,
isilik.
Aurreneko botikara jotzen zuten,
96 graduko alkohol botila batzuk erosi eta
edozein likore arrunt bezala edaten zituzten
Elorrietako bihurgunean,
itsasadarreko bazterrean jesarrita
kanalari begira,
kanaleko ur koipeztu, lohi eta hilei begira,
berba gutxi ezpainetan,
zurrutada luzeak ezpainetan,
alkohol dinamitero hura ezpainetan.

Gibelari gerra.
Herriminari gerra.

RAGGAMUFFIN ERRITMOAN

Oso gustukoa nuen taberna hura
neguko zapatu gauetan,
zapatu euritsuetan batez ere.
Hiri zahar honetako argazki zaharrak
tartekatu egiten ziren
kontzertu iraganen kartel koloretsuen artean...
eta matxinada etengabeari lotzeko deiak
joandakoen begirada inprimatuarekin batera.
Garagardo freskoa eta ron txupitoak
egurrezko barran zehar
lasterketa ero batean bezala,
eta bafleen taupada espitosoak,
eta metxeroen su amaigabea
zigarrotxoen puntetan
zein esku ahurretan...
eta, aizue,
aldaken bihurguneak
raggamuffin erritmopean...
aldaken bihurguneak, aizue.

GASOLINDEGIAN

Kikildu egin zen
tailer itxi hartako atean,
kikildu
hotzak balego bezala.

Eta gasolindegian depositoa
betetzen ari nintzela,
haren beldurrezko begirada
jaso nuen,
ezer ulertu gabe.
Ikara bere begietan
eta gorputz kikilduan.

Depositoa bete
eta barrura sartu nintzen
ordaintzera.
Minutu batez-edo.

Handik irten eta
berriro ikusi nuen gizon hura,
baina bata zuri bat jantzita eta

ohatila bati zinturoi sendoez lotuta;
ondoan hiruzpalau gizon luze
eta psikiatrikoko furgoi bat;
eta gizon haren begietan,
oraindik niri zuzenduak,
begirada ikaragarria,
beldur izugarria.

Infernura eraman zuten.

3 KOÑAK UNDERGROUND

Tabernako leihotik itsasadarra ikusten da suge ilun baten antzera. Halaxe begitandu zaio Gabriel Arestiri zeru goibeleko arratsaldean, zirimiriak ur uherrok zelan laztantzen dituen begira, zirimiriak Bilbao zahar hau zelan bustitzen duen begira, ezpainetara kafesne koñakatua daraman bitartean. Tabernako atea zabaldu, barrura sartu eta Gabrielen ondora jesarri da Bukowski.

Zer behar duk, Charley?

Koñaka, doblea eta berotua.

Non ibili haiz, ba? —galdetu dio Arestik.

Han eta hemen, norabiderik gabe. Jende larregi nonahi, badakik.

Amerikanoak Guggenheimera joaten dituk —diotso Arestik irribarre maltzurrez—, euren sukurtsal bat baino ez garela pentsatzen ditek.

Guggenheim izenak Estatu Batuetako bekadun koipemaile eta adurzaleak ekartzen zizkidak gogora —dio Bukowskik, koñak doblea eta berotua ekarri duen neskaren ipurdiari begira—, esateko ganorazko

ezer ez daukan sasi-intelektual jendea, baina Guggen errapetik bizi dena. Ez nauk handik pasako. Nahiago ditiat hemendik gertu San Francisco kalean ikusi ditudan musulman eta beltz horien begiradak; poema ederrak isur litezkek horien begietatik... Noren zain gaudek?

Haren zain —diotso.

Eta Celso Emilio Ferreiro sartu da, panazko txamarra bustia goraino lotuta. Barran koñaka eskatu eta Gabriel eta Charleyren ondoan jesarri da.

Faltan zeukaat Kaliforniako eguzkia —dio Charleyk, kristaletik bestaldera begira; dena gris, dena langarra.

Nondik hator? —galdetu dio Gabrielek Celso Emiliori.

Sestao eta Barakaldoko itsasadar bazterretan ibili nauk, txatarra meta eta garabi ugertuen artean lasai paseatzen. Bart amets egin nian Lois Pereirorekin, bere poema zati honekin:

Que a vida non me sorprenda xamais
desprevenido calado e neutral
e que un segundo antes de renderme
vaia tamén comigo a imaxe do que fun cando era outro
Fumes de Barakaldo Rentería Sestao

invernías nos corpos desde dentro e ferro húmido
nos aceiros da Ría do Nervión co Ruhr cruzado...

Kobetasmendi, Monte Caramelo eta inguru horietan galdua hintzela uste nian, hargin galego zaharren baten bila, euren hizkeraren sekretuak argitzearren, hargina «arxina» eta beste bitxi hori «gitxi a gitxi, pouco a pouco...».

Ez, Gabriel, ez nauk gure itsaso barreneko konexioaren bila ibili. Berbak ez naik inorekin anaitzen. Ukabilkadaren norabideari erreparatzen zioat. Hortik Loisen poema.

Hilda zegok Lois —diotso Gabrielek.

Gu bezain hilik, gu bezala harrek janda, lurrarekin berdinduta.

Horixe duk bakerik berdaderoena —dio Charleyk—, besterik bilatzea lan antzua duk. Nik orain gustura ikusiko nitizkek zaldiak trostan, hortxe, itsasadarreko ur gainean, trostan, adurra muturretan... itsasaldera...

Hemendik gutxira —esan du Gabrielek barre artean— Bilbao Ria 2000 delakoak igoal aterako dik halako bideo joko bat.

Tira, hori harriak baino hotzagoa duk —iruditu zaio Ferreirori—, hotzagoa eta hilagoa.

Hori guztia ustela duk, lagunok. Beraz, jarrai dezagun koñakarekin, horrexek eramango naik agian zaldien paradisura —dio Charleyk, eta hurbiltzeko keinua egin dio barran ari den neskari.

Bere ipurdi ederrarekin konformatu beharko duk bitartean —ziria sartu dio Gabrielek.

Bai, beharko. Urte larregi eman nian halakorik gabe. Ez ipurdi ederrik ez arrakastarik. Editoreek behin eta berriro itzultzen zizkidatean bidalitako poemak eta narrazioak, literatur baliorik ez zeukatela esanez. Hala ere, nire idazmakina zaharretik zeozer benetakoa, zeozer potentea ateratzen zela sentitzen nian, sua zegoela lerro zikin haietan.

Ezaguna egiten zaidak hori.

Eta lurpean hagoenean aitortzen ditek lanaren balioa.

Baina bost axola euren errekonozimendua, gurea...

Gurea underground, lagunok —eten dio Charleyk.

Lurpean gaudelako?

Lurpean bageunde bezala idatzi genian, eta benetan lurpean gaudela bostekoa eman nahi zigutek. Barregarria.

Underground, beraz, gurea.

Hiru koñak eskatuko zizkioat ipurdi ederreko andereñoari. Itsasadar gaineko zaldiak gertu ikusten ditiat.

Gertu ikusi nahi duana ipurdi eder hori duk, Charley.

Ipurdia, zaldiak, koñaka, zuek... Gertu, bizitza ikusi nahi diat.

KONDOIAREN ZAPOREA

Lasai, astiro hurbilduko zaizu,
irribarre batez jantzita,
pega-pega eginda daraman soineko baten barruan,
eta berbetan hasiko zaizu
betiko lagunak,
betiko maitaleak bazinete bezala,
putetxeko ilunpe horretan.

Hurbil-hurbil egingo dizu berba,
bere hatsa senti dezazun,
eta igarriko duzu
bere eskuak zelan bidaiatuko duen
zure bularretik, astiro,
zure hankarteraino, astiroago,
gerri aldean dantza gozoan jarri arte.

Ederto jakingo du
ez zarela orduan pentsatzeko gauza,
ez zaizula burmuinera odola iristen,
ezta bihotzera ere,
odol guztia
hankartera bonbeatzen ari zaizula.

Prostitutaren ezpainetan
kondoiaren zaporea igarriko duzu
musukatzen zaituenean,
eta ez duzu arrazoia jakingo.

Kondoia jantziko dizu
zakil harrotuan
eta hura miazkatzen hasiko da.
Orduan ulertuko duzu
bere ezpainen zaporea,
orduan ulertuko duzu
miseria hau guztia.

Baina berandu izango da.

PARADISUAK

Paradisuak mapetan bilatzea
lan antzua da, lagun,
erabat antzua, alferrikako lana.

Ez dago ez uharte ez badia
ez labar ez hondartzarik,
ez dago ez haran ez zaldu ez pagadi
ez mitxoletaz gainezkako zelairik,
ez dago ez taberna
ez erreka gaineko zubi
ez ezkiek jantzitako parke
ez etorbide zabalik,
ez dago paradisua bermatuko dizun lekurik.

Paradisua ez duzu inon topatuko.
Noizbehinkako momentuetan baino ez duzu
gozatuko,
momentu gutxi, oso gutxi batzuetan baino ez.

ETA BAT GINEN

Baterak nikia erantzi eta,
atzeko poltsikoan pare bat gorde ostean,
baketak jarri zituen dantzan.
Horrelaxe gogoratzen dut,
bonboa lasai baina gogor jotzen hasi zela,
eta baxujoleak, isilik baina irribarretsu,
erritmo bizi eta sendo bat eman ziola hasierari;
gogoratzen dut
abeslariak jantzita zeraman Intifadaren niki gorria,
eta gitarraren anplifikadoretik
sirena moduko garrasi bat
lehertu zitzaigula belarri zuloetan;
gogoratzen dut
gainezka zegoela taberna hura,
bero
izerditan,
eta barran
sakabanatu egiten zirela zurrutadak,
gure eskuetan dantzan jarri arte;
gogoratzen dut
atzetik besarkatu

eta musuka hasi zinela ene saman
luze
epel,
zure mihia eta ezpainak
eraso kontrol bako baina gozo batean,
eta abeslaria mikrora hurreratu eta
«Goazen!» ozen bat
oihukatu zuela...

eta bi ginen
eta ehun ginen
eta bat ginen.

ZUBI AZPIAN

La Salveko zubi azpiko bazter batean
betiko gelditu zitzaion bizitzaren erlojua,
bere bihotz nekatu hura,
tetra-brikeko ardo merke eta
garagardo eskasaren nahasketa
larregi irentsi ostean,
negu gorrian.

Faroletatik urrun anguleroen argiak,
maitemindu berriak han-hemen musuka,
izugarrizko hotza,
eta izoztutako zainak ezin berotu.
Eta, antza,
inoiz baino ederrago zegoen itsasadarra
gau hartan,
La Salveko zubi azpiko bazter batean
gizon etxegabe hari
bizitzaren erlojua gelditu zitzaion gau hartan,
bere bihotz nekatu hura
betiko gelditu zitzaion gau hartan.

HIRI HAU

Odola dario sudur zuloetatik
etengabe
ezpainetan nahastu arte,
eta korrika doa atzera
etorbide nagusiko trafiko artean sartzen ari dela
ohartu gabe.
Aurrera baino ez du begiratzen,
atzera doan bitartean.

Autobusak, kotxeak, motorrak eta halakoak
haren ondotik,
bera saihesten ari direla
ohartu gabe.

Odoletan doa atzerantz,
aurrera begiratzeari utzi gabe,
jakin dakielako
aurrean daukala benetako arriskua,
taberna horretatik irten eta
berarengana doan bikote horren labanetan;
eta kalean zehar dabilen jendearen artean

indiferentzia ikaragarria,
labanak bezain ikaragarria.

Horrelakoxea da
hiri hau
orain.

MARMOKAK

Bere ondoan nagoela
marmokak datozkit gogora,
marmokak izara arteko itsasoan,
hara eta hona, lasai,
marmokak.
Ura besterik ez izara arteko galarrenean,
ura, edo hobe esanda, barreneko zuku epela
ezpainen artetik isuria,
hankarteko oihanetik isuria,
barreneko zuku epela
izara arteko galarrenean.
Eta lema kraskatu eta
belak urratu eta hautsi,
eta hala ere ez dit axola nora naraman
bere barreneko zuku epeletan
igerian
banabil.

ZIUR EGON ZAITEZTE

Poliziak basatxakurren pare agertu eta
kalean saltzen ari ziren emakume perutarren kontra
oldartu egin dira
zer zapaltzen zuten arduratu barik,
emakumeen altzoan negarrez hasi diren
umeengan erreparatu barik,
inolako begirune barik.
Bihotza soldata on batek erosten du erraz.

Emakume kolonbiar batek astiro ekarri du
kafetegiko terrazara
gurpil-aulki batean
ondo orraztuta
garesti jantzita
urrez gainezka
dagoen burgesiako andre zaharra.

Ehun bat metrora, kale kantoian sartu berri,
emakume brasildar bat putetxera abiatu da,
ezpainak eta begiak oraindik makillatu barik,
urkamendira doanaren pausoez,

bere bihurguneen gainetik behartuko duen
irribarre sentsuala jantzi barik.

Gurutzea eta ezpataren kiratsa oraindik gure artean,
eta hala ere, ziur egon zaitezte,
Amerikaren triskantzan ibilitako
putakumeren baten andantzak
ospatuko ditugu
herri honetan
edozein egunetan,
putakume guztien izenean.

Ziur egon zaitezte.

AUZOKO JONKI HORI

Auzoko jonki hori hara eta hona dabil,
patua eta Herioa berari barreka dituela,
noraezean kaleotatik,
bizitzaren iparrorratza aspaldian galdua
eta larruazala iragaztontziak baino zulatuagoa.

Larruazala beltzune erraldoia du.
¿Un cigarro? —eskatu dit,
betazalak ia erabat bilduta.
Eta zigarro bat eman diot.
No, no quiero molestarte —diost.
¿Molestarme?,
nunca me has molestado, Juanlu —diotsot.

Bera ezagutzen dudalako harrituta oso,
saiatu da betazalak jasotzen,
eta zirrikitu horietatik niri begira geratu da,
ni ezagutu gabe,
lau urte-edo genituenetik elkar ezagutzen badugu
ere.
Ah, ya... —diost,
ezagutu banindu bezala.

Gezurra,
ez nau ezagutu,
baina hori aprobetxatuz
bigarrena eskatu dit,
eta pare bat eman diot.
Ya estaremos —diost,
eskua sorbaldan ipini didala.

Eta badoa, astiro, noraezean,
hilik etzateko badia bila
hil hurran doazen
balea erraldoien gisa.

NI NAIZ
CHARLIE DONNELLY

Jameson botila bat eta baso biren inguruan bildu gara
Brendan Behan eta biok Uholde tabernan,
pub sasi-irlandarren kontura barrezka batzuetan,
literaturaz eta borrokaz berbetan besteetan,
whiskey koloreko ordu hauetan.
Bere begietan alkoholaren distira
kartzeletan eman zituen urteen minarekin batera.

Poesia nonahi topa daitekeela aipatu du,
baldin eta bihotzeko begiak erne badituzu,
eta horren ostean, zurrut egin duen bitartean,
egunkariko eskela bat atera eta erakutsi dit:
gizon baten argazkia, izena, abizenak...

A.A.U.
Rebelde y antifranquista
(Fugado del penal de San Cristobal)

Yo quería dar todo
antes de que la muerte llegase,
quedarme vacío
para que la hija de puta
no encontrara nada que llevarse.

Poesia eskela batean bertan topa daitekeela diost
Behanek,
eta zenduaren borroka egunak ekarri ditu gogora,
Irlandako Connolly Column hura, Frank Ryan buru
zutela,
faxismoaren kontrako lubakietara etorri zen garaia,
Tyrone konderriko Charlie Donnelly poeta
internazionalista
olibondoen arteko lubakietan tirokatu zuten eguna.

Behanek hori guztia gogoratu ostean,
basoak bete eta errime aldarrikatu du:
Ni naiz Charlie Donnelly,
15 Brigadako poeta!

Eta topa egin dugu,
eta baita basoak hustu ere,
Brendan Behanek eta biok
Uholde tabernan.

PORROTAREN TABERNAN

Goizaldeko laurak dira
porrotaren tabernan
eta botilatik zurrut egin ostean
zera esan dit,
musukatu egingo lizkiokeela
ezpainak,
musuan daudenak
eta hankarteko ilunpean gordetzen direnak,
eta bere zuku gozo eta gaziak
edango lituzkeela
basamortuko oasiren batean balego bezala.

Ezpainak musukatuko lizkioke,
baina hala ere,
zoritxarrez,
botilarenak ditu
aukera bakarra.

GOIZALDEKO PORNOA

Taberna gainezka dago,
goizaldeko seiak badira ere.
Kea, kafea eta pattarrak
labe garaietan lana
amaitu duten langileentzat
eta hasiko direnentzat.
Edadetuak eta gazteak,
eguneroko lan puta hori arindu nahian,
bideo porno batek
ke-lainoaren arteko telebistatik
giro ilun honetan
kolore apur bat
ematen duen bitartean...
eta bero apur bat.
Kanpoan hotza,
zeruaren beltza ukitu nahi duten
tximinia erraldoien su ikaragarria
eta itsasadarraren marea,
batzuetan gora eta
besteetan behera,
telebistako zakil langileen moduan.

KAIOAK

Dozenaka kaio itzulinguruka
merkatalguneko zabortegian,
hara eta hona
barazki eta arrain ustelduen artean,
sagutzarrei mokoka
kartoizko olatu karratuen inguruan,
goseak amorratuak,
odolak erotuak,
itsasbazterretik urrun.

Portuko uretan, berriz,
koipea eta petrolioa,
buiak eta ohol zahar eta errariak,
plastikoren bat
eta lauzpabost kaio erromantiko
itsaso preso eta bareko ur lohiotan,
balantzaka
bihotza noiz geldituko zaien
axola gabe,
lauzpabost kaio erromantiko
balantzaka
axola gabe.

ZUHAITZ ARTEAN

La Misericordiako zuhaitz erraldoien altzoan
paseoan ibiltzen dira atso-agureak astiro,
eta noizean behin jesarri egiten dira banku
zaharretan
dagoeneko ezer espero gabe baleude bezala.
Ogi zahar puskak ateratzen dituzte
inguruan biltzen zaizkien usoei emateko
bake bedeinkatu eta faltsupean.

Uste handiko ezkontzak euren atzean,
elizako atari inguruan, arroza nonahi.
Eta ondoan San Mamesen harrokeria,
harrobikeria oihuka,
algara eroak eta bandera merkeak,
ezer duinik aldarrikatzen ez dutenak.
Eta Jesukristo ezin harrotuago bat
errotondaren erdi-erdian,
Jesukristo ezin harrizkoago bat
zeruranzko zutabetzar horretatik begira,
ezer ikusi gabe,
zuhaitz arteko minari erreparatu gabe.

Paseoan ibiltzen dira atso-agureak astiro
La Misericordiako zuhaitz erraldoien altzoan,
ezer espero gabe.

HAU EZ DOK BRIXTON

San Anton zubi aldean
Erriberako azoka inguruan
La Merced zubi parean
eta beste hainbat lekutan aparkatutako
kontainerretan
sua eta kea,
hainbat ordutako matxinadaren seinale
borroka osteko isiltasun hilean.
Furgoien paretik igaro eta
txakurradaren begiradapean
astindu egin zenituen eskuak,
hotzak bazeunde bezala.
The Clash-en White Riots zenuen ezpainetan,
Atxuri aldeko tabernaren batera gindoazela.

Hau ez dok Brixton —esan nizun.
Hau okerrago jagok —erantzun zenidan—,
askoz okerrago.

Atzera begiratu nuen.
Sutan zeuden kontainerrak,

jiraka etengabe, erotuta,
furgoietako argi urdinak
eta, bitartean,
ke laino erraldoi bat zabaltzen
kale hustu berrietan.

Honek, antza, luze joko jok
—gehitu zenuen irribarrez,
kale hustu berri haietan
zabaltzen ari zen ke laino artean
ikaragarri eskertu nuen irribarre batez,
Atxuri aldeko taberna batera sartzen ari ginela.

ESPERO EZ ZUENA

Goizaldeko laurak-edo izango ziren
Alde Zaharreko pub hartan.
Ateko pertsiana erdi jaitsita,
sei-zazpi lagun izango ginen barran
presa handirik gabe zurrutean,
patxadaz, badakizue.
Baina patxadatsuago zeuden
ondoan neuzkan bi emakumeak.

Batek
(berrogei urte pasa,
adats beltzaranak eta gin-tonika)
bere lagunari
(urte batzuk gazteago,
ile motz gorria eta rona)
zera aitortzen zion,
maitasuna delako hori
popatik bidaltzen zuela,
popatik, bai, popatik,
eta gogotik emanda,
ez zela berriro jausiko

inongo gizonen maitasun-hitz faltsuetan,
bakar-bakarrik nahi zuela
norbaitek atzetik heldu,
eskuak zilborraren inguruan jarri
eta astiro-astiro
titimuturretara igotzea,
haren mihi epelak
bizkarrean gora bidaiatuko zuen bitartean,
sama gordetzen duten adatsen artean galdu arte.

Ilegorria
bestearen sama laztantzen ari zela,
belarrira hurreratu eta
zeozer xuxurlatu zion,
zeozer laburra,
eta goxoa, antza,
pertsiana azpitik igaro,
kalera irten eta
eskutik ebatuta ikusi nituelako
kalean gora
Erribera aldera.

MAGGIE

Bera dela nire bizioa
diost Maggiek
irribarre harro batez,
ezin dudala bera barik bizi.

Baina... —hasi naiz esaten,
eta Maggiek
sugeen abiadura goxoaz
musukatu egin ditu nire ezpainak,
eta suabe haginka egin ostean
luze laztandu dizkit bere mihiaz,
arnas epel-epela
ezin hurbilago
igartzen diodan bitartean.

Eta egia da.
Maggie,
adatsak laru
begiak zeru,
nire bizioa da.

BERO APUR BAT

Batzuetan
oso poema hotzak
irakurri ditut,
odol gabeak
su gabeak,
inoiz, zorionez edo zoritxarrez,
sufritu ez duen jendearenak;
eta poema horiek
sugarrez jantzi nahi badituzte ere,
plastikoa bezain hotzak dira,
antzuak eta grisak;
horrexegatik
sarritan jo ohi dut
kale barreneko tabernan
zurrutaden inguruan
biltzen diren
zaharrengana,
bero apur baten bila,
euren begiradei
euren ahotsei darien
bero apur horren bila.

BEGIRA EGIOZU GIZON HORRI

Begira egiozu gizon horri,
baso luzanga ardo eta hiru zigarrotxo
mahai gainean dauzkan
gizon zimurtu eta zahartu horri.
Badirudi ez diola ezerk axola,
tabakoa eta ardoa dira
behar duen guztia,
eta ez du ezer gehiago eskatzen.

Begira egiozu gizon horri,
tabernako bazter horretan dagoen gizon baztertu
horri.
Badirudi ez diola ezerk axola mundu honetan
momentu honetan,
ez duela lagunik nahi, ezta behar ere,
eta bere bihotz ezin urratuago hori
alkoholez baino ezin duela laztandu.
Gaurkoa bezalako arrats euritsuetan
aterpe ematen diote taberna honetan,
aterpe eta baso luzanga bat ardo,

eta lasai-lasai erreko dituen hiruzpalau zigarrotxo,
bizitzak beti bezain puta jarraitzen duela
ikusten duen bitartean
taberna honetako bazter horretatik.

Begira egiozu gizon horri.
Gau batean botila bat kraskatu eta
amorruz aurre egin zien
barre egiten zioten putakume batzuei,
botila kraskatu
eta akabatu egingo zituela esan zien,
oihuka, samako zaina hanpatuta,
eta dardaraka zeukan eskuaz
zuzendu egin zien
kristal puskatuaren zorrotza,
txerriak bezala akabatu egingo zituela
oihukatzen zuen bitartean.

Begiratu egiozu gizon horri.
Handik ordu laurden batera,
txakurrak agertu eta kanpora eraman zuten,
tabernan zeuden putakumeak xaxaka ari zirela,
eta kale kantoi bateko ilunpean
jipoitu egin zuten

inolako gupidarik gabe,
Jaungoikoaren eta Legearen izenean.

Begira egiozu gizon horri.

EZER GERTATU
EZ BALITZ BEZALA

Itsasadarrera bota zuen bere burua,
hiria laztantzen duten ur beltzetara,
gaueko ordu txikietan
inguruko tabernaren bateko komunean
sudurrak zurituko zituzten aldi berean,
inguruko zubi aldean
sama eta beso ubelduak zulatuko zituzten aldi berean,
eta tabernetako barretan
zurrutadak, musuak, bafleetako erritmoak eta
berba ozen zein leunak esango zituzten aldi berean.

Mareak Zorrotzaurreko bazter abandonatuetaraino jaitsi
eta handik gutxira berriro igo zuen itsasadarrean gora,
maiteminduen mihiak olgetan zeuden moila zaharreraino,
gurpil gastatu eta zulatu baten antzera.

DYAkoak etorri ziren,
argiak eta sirenak garrasika,
eta munipak kotxe bitan,
besteak baino lasaiago,
aho zabalka, logura begiradetan.

Jende zirimola inguruan, ur beltzei begira, berbetan:
«Ura ez dago esaten duten bezain garbi».
«Gure aititek hemen ikasi zuen igeri egiten».
«Aurten angula gutxi sartu ei da».
«Polita izango da Txinbito horretan gauez
nabigatzea, ezta?».
«Horiek potroak halakorik egiteko!».

Potroak baino, pentsatu nuen, mina,
min itzela harena,
ondoko leiho batean
Cesaria Evoraren ahots gozoa entzuten ari zela.

Handik gutxira hilotza atera zuten uretatik,
eta jendea sakabanatu egin zen
tabernetarantz, etxetarantz,
lasai, berbetan,
ezer gertatu ez balitz bezala.

ALDAPAN BEHERA

Demagun arratsalde eskasa egiten zuela,
badakizue, zerua gris eta zirimiri puta hori,
eta, jakina, batzuek kontrakoa esango dute,
oso bilbotarra dela hori guztia, oso hemengoa,
eta, bueno, holan nahi baduzue, tira,
baina kontua bestelakoa da,
kontua da Cantalojasko zubitik pasa nintzela,
lasai, inolako presa barik, beherantz,
Bilbao La Viejarantz,
zurrutada batzuk jo eta hanka,
beste barik,
baina, egia esan, ezin dut handik pasa
eta bihotza urratu barik geratu,
ezin dut, ezin izango nuke inoiz,
zer egingo diogu, ba, halakoxeak gara;
eta, benetan, zirimiria egiten bazuen ere,
jende guztiak kalean ematen zuen denbora,
denbora pasa, egonean egon,
alferrikako denbora, esango lukete batzuek,
eta begirada okerra ipiniko liekete hango batzuei,
ea zelan etorri diren gurera holan egoteko,

potrojorran,
eta ezin izango dute besterik pentsatu,
hala nola, kale gorrian dauden horiek
lan duin bat nahiko luketela,
inongo pretentsiorik ez daukan lan duin bat,
baina ez,
moro, beltz, ijito, puta eta jonki saldo bat
kalean gora eta behera baino ez dute ikusten,
hori baino ez dute ikusi nahi,
bihotzeko miopia izugarria da batzuetan.
Gerra, gorrotoa, nazka eta mina
ikusten ditut kalean, dantzan,
baina benetako mina,
ez batzuek behin eta berriro sartzen diguten min-
matraka,
deputamadre, ederto bizi direla jakinda,
baina hala ere jo ta fuego euren min-matrakarekin,
etengabe, bonbardeo hutsean,
euren barren-barreneko minarekin.
Eta ez dakit barre ala negar egin behar ote dudan,
etor zaitezte hona, esango nieke,
etorri eta benetako mina usainduko duzue,
usaindu, bai, eta entzun eta ikusi eta ukitu,
etorri, eta ez esan zeru gris hau ederra denik,

zeru gris puta honek ez ditu azalak berotzen,
edo ez duzue ikusten izkina horretan
jonki hori zelan dagoen hotzak akabatzen?,
ze astiro pausatzen dituen oinak
zirimiriak lohitutako kaleotan labain ez egiteko?
Barreneko minak,
barreneko ostiak!
Putek gustura edukiko lituzkete barreneko minak
kaletik betiko hanka egiteko lantxo duin bat izanez
gero,
emaidazu, esango lizukete, emaidazu lantxo bat,
ez oso ondo pagatua, nahi baduzu,
baina bizitzeko beste pagatua,
eta zin egiten dizut
zure barreneko min guztiak jango ditudala,
eta eurekin lo eta larrutan egingo dudala,
eta zupaka egingo diedala
zure barreneko minen zakilburuei,
lan normaltxo bat, hemendik eskapatzeko modukoa,
ez zerura eramateko modukoa, ez.
Eta gauza bera esango lizukete magrebiarrek,
nahiago dutela nonbaiten beharrean ibili
izkinako bileretan baino,
baina, jakina, zeozer emango diete balizko lapurrei?,

joan daitezela euren desertura behingoz,
entzun dezakezue gure kale zibilizatuetan,
itxura oneko kristau eta ondo ordainduen artean,
joan daitezela betiko, kiratsa darie-eta!
Utzidazue barre egiten, apur batez behintzat.
Barreneko minak...!
Astiro, oso-oso astiro
ezer ikusi gabe doan jonki horrek
ez dauka barreneko minik,
ez dauka ezer barrenean, ezer ez,
hutsik dago, ondoko obretako tuberiak bezain
hutsik,
indar barik hamar metro gora eta hamar behera,
eta zuek bere gainean ikusten dituzuen kaioak
itzulinguruka dabiltzan putreak dira beretzat,
hilotz ibiltari bat ikusten duten putreak,
zer uste zenuten?
Begi guztiek ez dute gauza bera ikusten.
Beherantz nindoan
arratsalde euritsu, gris eta puta hartan,
Piratara edo Elexaldera, han inguruko batera,
ez nekien nora, bost axola,
baina kontua erraza zen,
zurrutada batzuk jo lagunen artean,

lagunik egotekotan, jakina;
baina, beti bezala,
kale hartatik jaistean
betikoa pentsatu nuen,
atsegina dela
zurrutadaren laztana eskuetan,
errebolberraren laztana
bezain
atsegina.

TXIZAREN HOTSA

Ohetik altxatu eta
zigarro bat isiotu nuen
leihoaren ondoan,
ibai gainean hegan zebiltzan kaioei begira.

Bera komunean zegoen,
isilik,
eta entzun nuen
zelan egiten zuen txiza,
txortan hasi eta ordu laurden bateko astinaldi bat
amaitu ostean,
ordu laurden bateko astinaldi arin, isil eta lar hotz
bat
amaitu ostean.

Zigarroari zupada luze pare bat eman eta
komuneko zisterna zelan husten zen
entzutearekin batera
ulertu nuen
dena amaitua zela.